

Bihotzeko Sareak

Mariasun Landa Etxebeste

www.mariasunlanda.net

*Josean Arbelaitz ahaztezinari.
in memoriam*

Mari oso gaixo zegoela jakin bezain laster hartu nuen erabakia.

Jean Luc-ek ez zuen ulertu nik Pariseko galeria eta egun haietarako adostutako hitzorduak bertan behera uztea bere ustez larria ez zen arrazoi batengatik.

–Ez zara tren hartzen hasiko emakume horrek gaixoaldi bat duen bakoitzean!

Baina ez nion jaramonik egin. Eguerdian, Hendaiaiko geltokira iritsi, taxia hartu eta ordubete laburrean zaharren egoitzan nintzen, nire haurtzarora

eman nuen arrantzale-herriska haren goiko aldean. Izan ere, bihotzeko telefonoak jo zuen nigan, eta dei hura utzi ezina egin zitzaidan.

Mari zain nuela iruditu zitzaidan, atseginezko irribarrea agertu zen haren aurpegian, isilpeko dei bati erantzun diotela ikusten duenak bezala.

“Hara! Oparirik ederrena!”, Mariaren begiak dirdirka.

Besarkada luzea, galderak baino gehiago begiradak, haurtzarotik nuen berarekin sintonia sakona azaleratu zen bat-batean.



–Ongi zetorkidan orain etortzea, ez dago lan handirik, seme-alabak beren gisan bizi dira... –esan nion zurrun samar. Justifikazio sorta txiki bat, beharrezkoa ez bazen ere.

Emakume adintsu hura funtsezkoa zen nire bitzan, eta osasun-krisi berriak bizkortu baizik ez zuen egin aspaldian zor nion bisita. Marik jaiki egin nahi izan zuen, baina alboko ohekoak behin eta berriro esan zidan ez zuela hori egin behar, jakiten bazuten haserretu egingo zirela zaintzaileak... Hala ere, lagundu egin nion, beti erakarri nauelako esanekoa ez izateak, eta ez nintzelako Paristik etorri Marik eskatutako ezer ukatzeko. Ohe-ertzean eserarazi eta espartinak janzen laguntzen nion bitartean, bere *taka-taka* seinalatu zidan keinuz: lerratzen zen euskarri hari heldu zion bi eskuekin poliki-poliki mugitzeko, nekez... leihorantz.

Handik ikusten zen, garbi samar, emakume talde txiki bat, portuko kaian biribilean eserita, hankak luzaturik, buruak zapiz edo kapelaz estalita, burumakur, altzoan mantu koloretsu gisa zituzten sareak konpontzeko lanean jo eta ke ari zirela: kobre-koloreko uhinak, gorritzak, marroiak ziren, kaiaren zati handi batean hedatuta. Sare-konpontzaileak ziren.

“Horren mira dut. Ontzi gutxiago, sare konpontzen emakume gutxiago”, izan zen Mariren azalpen guztia.

–Ez nau harritzen, lan gogorra da, gutxi estimatua... nahiz eta orain badituzten lan-baldintza hobeak, Gizarte Segurantza, lantoki babestuak... Interneten irakurri nuen.

“Zorioneko Interneta!”, Marik hitz gutxi baina zorrotzak beti.



Eta gogoratu nuen garai batean, nire haurtzaroan, sare-konpontzaileak beti prest egoten zirela arrantzaleen deia erantzuteko, gau eta egun, jai edo astegun izan. Amak, alabak edo arrebak sartu ohi ziren lanbide hartan familiako arrantzontzi txikiari laguntze aldera.

Zaharren egoitza ikusten zen emakume horietako bat izan nintekeen neu ere.

“Zuk, gutxienez, burua erabili ahal izan duzu eta ez eskuak bakarrik”, esan zidan Marik garraztasun pitin batez.

–Nahiago nuke zure eskuak banitu! –eta hori esatean haren atzamar bihurrituei erreparatu nien, aihenak ziruditen, artritisak eragabetuak; umetan hatz haiek liluratu egiten ninduten zurezko jostorraz handia zein trebeki, arin eta zehazki erabiltzen zuten ikusita; Marik inguruan pilaturiko sareak konpontzen zituen korapilo edo jostura bidez, begi desberdinetako sareak arrantzatu beharrekoaren arabera: merlenka edo barbarinak, mihi-arrain edo krabarrokak..., edota oso begi txikiko sare handiak antxoa, berdela, sardinak edo txitxarroak harripatzeko erabiliak. Sareak kotoizkoak ziren, baina hezetasunaz lehenago hondatzen ziren: tindatu egin behar ziren eta eguzkitan lehortu; gero nylonezkoak etorri ziren: ez zituzten eragozpen haiek, baina gogorrak ziren eskuetarako, ez ziren tindatzen ezta eguzkitan lehortzen ere, baina mehetuz-mehetuz joaten ziren eta hatz-puntak odolduta uzten zituzten.

Txikitan, arrain-merkatuan, arkupetan, beti zegoen emakume bat sare-konponketaren lehen nozioak ematen zizkiena han kaian noraezean ibiltzen ziren neskatilei: sare puska deseginetan lehen orratz-puntadak ematen, oraindik txikiak ziren zuloxoak konpontzen, ikasi beharreko eskulana zuten korapiloak egiten... eta azken batean sareak zabal-zabal hedatzen, zuloak eta hausturak aurkitzeko kortxoetatik berunetaraino.

Mari zen kotizatuena, bere denborarekin eskuzabalena, eta mireshenez hurbiltzen nintzen maistra harengana. Berak, ordea, inoiz ez zion amore eman nik nahi nuenari, eta ez zidan lanbidea irakatsi.

“Zuk gorago iritsi behar duzu”, esaten zuen biribilki.

Beraz, aukera iritsi zitzaionean, adarretatik heldu zion, bere buruan buelta batzuk eman eta oso-osorik eman zidan niri, neuk egin nezan neure bidez hark bereaz egin nahiko zukeena.



–Nik asko eskertzen dizut eskaintza, baina nahiago dut neskatala hau joaten bada zurekin Frantziara.

Arratsalde hartan, sare-konpontzaile artean nengoen eta salto egin nuen izututa... Banekien portuan ibiltzen ziren udatiar haiek elkarrizketa hutsalak izaten zituztela sare-konpontzaileekin; ohitura-eszena pintoresko bateko protagonistatzat hartuko zituzten agian. Haietako batek, *madame* Tournierrek, Miarriz-en ematen zuen uda eta urtero Paris urrunetik etortzen zen; oso gogoko zuen Mari. Parisko *banlieue*-ko lantegira eraman nahi izan zuen, *broderie* egiteko aparteko dohainak sumatzen zizkiola-eta.

Ez zebilen oker, Marik bere etxean sekula egingo ez zen ezkontzarako hornirik onena baitzuen bere etxean prestatuak. Eta *madame* Tournierrek amore eman zuen. Ez zen zaila izan nire ama konbentzitzea, gabezia-urteak ziren, gerraostekoak, eta seme-alaba bakoitza kezka astun bat zen halako alargunsa batentzat. Nire eskola-oporrek familia harekin pasatzen hasi nintzen, *atelier*-en praktikak eginez, eta urteak igaro ahala, nire bizitza Parisen ehundu zen, han eusten zidan sare sendo bat bezala, eta nire jaioterri txikira data jakin batzuetan, oroitzapenezko edo ospakizun-egunetan bakarrik etortzen nintzen, eta halakoetan beti ez nuen Marirekin elkartzeko aukera izaten...

“*Txiki*, ezin ditut min hauek jasan... Zorioneko erreuma!”, eta buelta ohera. “Heldu gogor gerritik, ez nuke zutik hil nahi eta!”

Haren gerriak nire esku artean herriko haurrek habietako txorikumeak harrapatu eta

eskuetan, samurtasunez baino gehiago jakin-minez, eduki ohi genituen garaia gogorarazi zidan. Mariri ere saihets-hezurak sumatzen nizkion, bere urrats duda-mudako eta geldo haien konpasean mugitzen zirenean; bizitza han zegoen fokalizatua, nire esku-ahurretan, karraska txiki batzuen, taupada kristalduen, karrankarik gabe lokatzen ziren hezurren antzeko sentipenak hartzen zituztelarik.

Umetan txorikumeengatik sentitzen ez nuen samurtasuna, orain Marirenganako sentitu nuen. Atzetik besarkatu nuen eta ezpainak hurbildu nizkion belarrira hitz batzuk esateko, funtsezkoak, azkenekoak...

–Ez dakit inoiz eman dizkizudan eskerrak... Naizen guztia zor dizut...

“Isilik, zaude isilik!” Eta erantzun gisa, armairuan belaki latzeko poltsa bat bilatzeko agindu zidan, eta haren aurrean ireki nuen: han eskukada bat zurezko jostorraz zahar zegoen, tamaina askotako sardexken antzekoak, bi muturretan pitzadurekin, erabileraren eta denboraren poderioz leunduak. Garai bateko eskulangintzaren arrastoak. Eta hartara emandako bizi oso baten arrastoak.

“Orain plastikozkoak dira”, irribarre egin zuen axolagabe. “Badakit gogoko dituzula gauza hauek”.

Eta ulertu nuen Marik bere eskuak ematen zizkidala opari.

Eta agur esaten zidala. Oraingo honetan, betirako.